

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN KONTU OROKORRAREN 2009-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Arabako Foru Aldundiaren Kontu Orokorraren, bere erakunde autonomoen eta merkataritzako foru sozietateen fiskalizazio txostena mamitu du, 2009ko ekitaldiaren gainekoa. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osoko kideek eta horietako hiruk baterako boto partikularra egin dute.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu, udal kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten ditu eta eta Udalaren finantza egoera aztertzen du.

Erakunde fiskalizatzaileak aldeko iritzia eman du Arabako Foru Aldundiak 2009ko ekitaldian legezketasuna betetzeari dagokionez, baina iritzi orokor honekiko hainbat salbuespen azaldu ditu.

Zerga sarrerei dagokienez, HKEEk azpimarratu du 17 enpresari bermerik gabe zerga zorrak ordaintzeko plan bereziak bideratu zaizkiela, 3,8 milioi euroren zenbatekoan, indarreko legeriaren arabera ezargarriak denaz azpitik % 0,5eko interes tipo txikiagoekin eta gehienera baimendutako aldiak gaindituz; izan ere, foru arautegiak baldintza berezietan gerorapenak edo zatikapenak emateko aukera aurreikusten duen arren, berandutza interesak zergapeko guztientzat bat bera izan behar duela dioen jurisprudentzia dago.

Administrazioko kontratazioa fiskalizatzean, salbuespen hauek azaleratu dira: zerbitzuetako hainbat espedientetan publizitate eta lehia printzipioak ez direla bete eta erosketa txikien hainbat kontratazio, prozedura ireki edo negoziatu bidez izapidetu behar ziratekeela.

AFaren bi erakunde autonomoek indarreko araudia bete dute ekonomia-finantzaren kudeaketan, salbuespen izan direlarik Gizarte Ongizaterako Foru Erakundean hainbat kontrataziotan ezargarria den arautegia ez bete izana.

Epaitegiaren iritzira, AFAk eta Gazteriaren Foru Erakundeak eta Gizarte Ongizaterako Institutuak aurkeztutako kontuek alderdi esanguratsu guztietan ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute, nahiz AFAREN kasuan 2009ko abenduaren 31n Diruzaintza Geldikinean bi doiketa azaleratu dituen, geldikina 148 milioi euroan murrizten dutenak eta txostenean bertan zehaztu direnak.

Txostenak, gainera, % 50etik gorako partaidetza duten bederatzi foru sozietate publikoak fiskalizatzen ditu eta erakunde fiskalizatzailearen iritzi orokorra aldekoa izan da, bertan jasotako ez-betetzeak salbuetsita. Berebat, sozietate publiko horien urteko kontuei buruzko iritzi aldekoa eman du.

Orobat, Epaitegiak hainbat gomendio luzatu ditu aurrekontu eta kontularitzari, sarrera fiskalen kudeaketari, ondareari, ondasun eta zerbitzuen kontratazioari, diru-laguntzen emakidari eta langileen kudeaketari dagozkionak.

Amaitzeko esan behar dugu finantza analisisian ondorioztatu dela emaitza arruntak 2009ko ekitaldian % 8,2 egin duela behera, Elkartean baten komunitate barneko inportazioen kontzeptuan 1993tik 2005era bitarteko aldirian BEZaren likidazioagatik erregistratutako sarreraren eragina kendu ondoren; azpimarratu behar da, gainera, aurrekontuko zorpetzeak izan duen igoera handia eta diruzaintza geldikin erabilgarriak 2008arekiko izan duen % 24,6ko beheraldia; halaber, aintzat hartu behar da HKEEK proposatu dituen doiketen ondorioz, diruzaintza geldikin erabilgarriaren saldoa negatiboa litzatekeela 36 milioi euroren zenbatekoan.